

Altza

Euskal Selektzioa gogoan hartuz

Larraitz Garmendia (tfnoa.: 943-391267)

Euskal Selektzioaren inguruan ekintza ugari antolatu da asteburu honetan Altzan. Antolatutako ekitaldien artean erakusketa, mahaingurua eta kontzertua dira aipagarrienak.

Erakusketa baten bitartez zenbait kiroletan Euskal Selektzioek orain arte egindako lana erakutsi nahi da. Bertan argitaratu gabeko argazkiak eta argazki historikoak ikusgai izango dira. Gainera, zenbait kirol arloko Euskal Selektzioen elastikoak ere han ikusi ahal izango dira. Erakusketa zabalik egongo da urriaren 8ra arte, 17.00etatik 21.00etara.

Hizlari ezagunak

Euskal Futbol Selektzioko lehen entrenaltzailea, Xabier Exposito Casares kultur etxean izango da hilaren 8an.

Berarekin batera, Agustin Aranzabal Realeko jokalaria eta Unai Osa txirrindulariak parte hartuko dute antolatutako mahainguruan.

Kontzertua Auzo Etxean

Euskal Selektzioaren aldeko ekintzak kontzertu batekin bukatuko dira. Niko Etxart, Joseba Gotzon eta Gontza Mendibilek 1937tik 1939ra bitartean Euskal Selektzioak nazioartean egindako birari buruzko hainbat pasadizo abestuko dituzte. Andoni Egañaren hitzak dira eta Joseba Gotzonek musika jarri die. Dena den, jende gehiagok parte hartuko du: Erwin Grafe, Lorea Rada, Beñat Aresti, Pilar Martinez eta Patxi Goikoetxea musikariak. Kontzertua urriaren 10ean egingo da, Altzako Auzo Etxean eta sarrerak 800 pezetan salduko dira.



Garai bateko Euskal Futbol Selektzioaren irudiak ikusgai egongo dira Casaresen.



ZERBITZU IRAUNKORRA: 943-39.07.12
DONOSTIA ETA GIPUZKOAKO OSPITALETAN

BULEGO NAGUSIA: Hondarribia, 28 - DONOSTIA
Tfnoa.: 943-42.87.79 • 943-42.17.86
P.K.: 672

BULEGOAK: ANDOAIN, PASAIA, ERRENDERIA, HERNANI,
LASARTE-URNIETA, TOLOSA ETA ASTIGARRAGA



MAIZPIDE

Euskaltegia - Barnetegia

LAZKAO

99/00 IKASTURTEA

IKASTAROAK URTE OSOAN

- **BARNETEGIA:** Egunean 6 klase eta ekintza osagarriak
- **BESTE BATZUK:** - 2 ordu egunean
- 4 ordu astean (larunbatetan)
- ikastaro berezituak

MAILA GUZTIAK

• HABEren diru-laguntza

DEITU ETA EMAN IZENA

Tfnoak.: (943) 889231 eta (943) 889232
Faxa: (943) 889232 • E-mail: maizpide@euskalnet.net

Kudeaketa egiteko Informatika Teknikaria

Ikas ezazu etorkizun handiko lanbide hau

- Kudeaketa eta informatika prestakuntza osoa eta gaurkotua egin nahi duten ikasleei zuzendua
- Iraupena - 9 hilabete (urritik ekainera)
- Hasiera data - urriak 11



• Titulazioa - IBM Informatika Agiri Ofiziala
Madrilgo Informatika Fakultate Politeknikoa

• Ikasketa plana

- | | | |
|-----------------------------|-----------------------------|-----------------------------------|
| • Informatikaren hastapenak | • Datu baseak, ACCESS | • Nominak eta Gizarte Segurantzza |
| • MS-DOS/WIN 98 | • Power Point | • Mekanografia |
| • Testu tratamendua, WORD | • C hizkuntza, Visual Basic | • Mektaririza mailako ingeles |
| • Kalkulu-orria, EXCEL | • Kontabilitate orokorra | • INTERNET |
| | • Fiskalitatea | • Komunikazioa eta artxibategia |

- Lan poltsa -

Zabaleta kalea 49, 2.-ezk. • Tfnoa.: (943) 275092
E-mail: guvi@guvi.euskalnet.net



25 urteko esperientzia